



**Arartekoaren 2-2018-RGO Ebazpena, 2018ko urtarrilaren 24koa. Horren bidez, zenbait gomendio ematen dira Arabako Foru Aldundiak familiarik gabe dauden adingabe atzerritarrei egiten dien lehenengo harrera hobetzeko.**

### Aurrekariak

2016ko azken hilabeteetan eta 2017ko udatik aurrera intentsitate handiagorekin antzeman denez, nabarmen igo da Euskadira familiarik gabe heltzen diren etorkin adingabeen kopurua, lurralde historikoen artean aldeak badaude ere. Etorkin olde handiago horrek tentsio handia sortu du babesgabeko haur eta nerabeentzako gizarte-zerbitzuen sistemako baliabideen sarean, non erantzuten baitzaie adingabe horien beharrei. Zailtasunak egon badaudela jakinda eta zentroetan pertsona gehiegi egon daitezkeelako ematen den arretaz kezkatuta, Arartekoak beharrezkotzat jo du familiarik gabeko adingabe atzerritarrentzako premiazko harrera zentroak (edo lehenengo harrera zentroak) bisitatzea, lurralde historiko guztietan. Araban, Arartekoko langileek Bideberria I zentroa bisitatu zuten, azaroaren 15ean.

#### ***1. Bisitan behatutakoa eta jasotakoa.***

Erakundeak 2015ean egindako azken bisitaldiarekin konparatuta, zentroko egoera lasaitu eta egonkortu egin da. Azpian zegoen lan gatazka amaitu egin zen eta hezitzaile taldea bateratuz joan da. Gainera, emantzipazio zentro berri bat ireki da, Bideberri III, gazteen ibilbidea ahalik eta hoberen osatzeko aukera ematen duena. Beraz, Bideberri I zentroak lehen harrerako programa garatzen du; Bideberri II zentroan emantzipaziorako prestakuntza jasotzen dute gazteek; Bideberri III zentroak, berriz, emantzipazio programa du. Hiru baliabideek 12 gazte hartzeko tokia dute eta eskari handiko uneetan beste 3 plaza gehitzen dira.

Bisitaren egunean, zentroen egoera hauxe da:

- 15 gazte Bideberri III zentroan, guztiak ohiko moduan erabiltzen diren logeletan.
- 15 gazte Bideberri II zentroan, guztiak ohiko moduan erabiltzen diren logeletan.
- 28 gazte Bideberri I zentroan; horietako 19k oheetan egiten dute lo eta gainerakoek koltxoi eta sofetan (guztiak behar bezala jantzita daude, ohe-jantzi eta edredoiekin). Logelak handiak dira eta koltxoiak ez dira oztopo mugitzeko.

Janaria gazte bat heltzen den unetik bertatik dago bermatuta; zentroa janariz hornitzen duen enpresari jakinarazten zaio errazioak gehitu behar direla.

Langileen kopurua handitu egin da, zentroan dauden gazteen kopurua kontuan hartuta, gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako





baliabideak arautzeko dekretuak eskatzen duen ratioari eutsiz. Hala ere, arloko arduradunek jakin badakite toki horretan dauden pertsonen kopurua arazoa izan daitekeela, profesionalen eta adingabeen arteko proportzioa arauak eskatzen duena bada ere. Zentroaren arduradunak aipatu du, gainera, zailtasunak izan dituztela dekretu arautzaileak eskatzen duen profileko profesionalak (hezitzaile laguntzaileak) aurkitzeko; hala ere, azkenean lortu egin dute.

Jakinarazi digute nerabe gehienak Marokokoak direla eta batzuek laguntza-sare bat dutela. Taldeak jasotako datu batzuei erreparatuta, pentsatzen dute baliabide ekonomikoak dituzten familietakoak direla, aurreko garaietan ez bezala. Erdiko klasekoak edo klase baxuko gazteak izan daitezke, familiaren emigratzeko asmoa burutzen ari denak.

Adingabeen herritartasunari dagokionez, azkenik, Saharaz hegoaldeko gazte gehiago etortzen da; Pakistangoak, berriz, dagoeneko ez dira heltzen.

Elkarrizketetan, adina zehazteko zailtasunak antzematen dira. Orain dela hilabete batzuk, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak adingabe horien harreran parte hartzen duten eragile guztiak elkartzeko deia egin zuen, adina zehazteko prozedura arintzeari buruz hitz egiteko, prozedurak ia-ia 6 hilabete irauten zuelako; denbora horretan, dokumentaziorik gabeko gazteak (beharbada adin nagusikoak) zentroan bizi ziren. Ondorioz, zentroan egoteko denbora luzea zen eta, batez ere, helduak adingabeekin batera bizi izateko arriskua zegoen. Bilera egin zenetik aurrera, Osakidetzak lehenagoko hitzorduak ematen dizkie, dagozkion proba erradiologikoak azkarrago egin ditzaten. Hala ere, oraindik zailtasunak dituzte: Polizia Nazionalak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen esku uzten ditu gazteei egin behar zaizkien hasierako elkarrizketak (interpreteak falta direla diote); Ministerio Fiskalak inoiz ez ditu zalantzan jartzen pasaporteko datuak, ezta gaztearen ezaugarriak oso deigarriak direnean ere (itxura zalantzan jartzeko irizpide profesionalik ez dutela diote); auzitegiko txostenean proba erradiologikoetako informazioa ematen da, hau da, kontsultara joaten da, baina (hezitzaileen arabera) ez da miaketa fisikorik egiten, erradiografiek emandako informazioa osatzeko.

#### Hezkuntza-prestakuntzari dagokionez:

- 16 urtetik beherako guztiak dagozkien institutuetan matrikulatzen dira. Helburua DBH egin izanaren ziurtagiria lortzea da, Oinarrizko Lanbide Heziketa eskuratzeko aukera emateko.
- Lanbidek 16 urtetik gorakoei prestakuntza-ikastaroetan izena emateko aukera ematen die. Ikastaroetan parte hartu dute.
- Lankidetzaren harreman oso ona dute Eraikuntza Institutuarekin; ikastaroetan plaza libreak badaude, harremanetan jartzen dira. Gazteek pozik onartzen dute aukera.

Egiaz, aukera horiek zentroan geratzen diren mutilekin lantzen dira batez ere. Argi da Bideberria II eta Bideberria III zentroen kasuan; zailagoa izaten da Bideberria I



zentroan, premiazko harrerakoa denez, erabiltzaileen aldaketak maiz gertatzen direlako. Edonola ere, prestakuntza-sareetan sartzen dira, kasuan kasuko ibilbidea eta plana zehaztu ahala. Bien bitartean, gaztelania eskolak jasotzen dituzte eta gainerako denboran kirol-, kultura-, aisialdi- eta abarreko jardueretan parte hartzen dute.

Zentroa bera eta gazteak bizi diren komunitatean integratzea da lan ildo garrantzitsuetako bat. Hortaz, auzokideekin, Gasteizko beste nerabe batzuekin, hiriko elkarte erakundeekin eta abarrekin harremanak sortzeko ekimenak burutzen dituzte. “Zaharraz harro” alde zaharrari buruzko ekimena dela eta, bigarren hezkuntzako institutu bateko ikasle taldeekin, Artium-ekin, “Goian” gizarte hezkuntza proiektuarekin eta fase desberdinetan dauden beste egitasmo batzuekin izandako esperientzien berri eman dute.

**Hala eta guztiz ere**, logelak handiak izan arren, langile gehiago egon arren, giro lasaiari esker hezkuntza mailan lan egin ahal izan arren eta abar, onartzen dute hartu behar izaten dituzten gazteen kopurua dela eta ezinezkoa dela **kalitate maila berdinean lan egitea**.

### Gogoetak

1. Gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautzen dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuaren oinarrietako bat honako hau da: zerbitzuak, baliabideak, zentroak egituratzea, bizitzeko eta erabat garatzeko aukera ematen duen bizitoki bat lortzeko, haur eta nerabeen eskubideak defendatzen dituzten nazioarteko erakundeen gomendioekin bat. Hortaz, zentro txikiak aukeratzen dira, profesionalen eta haurren proportzio egokia dutenak, non posible den konfiantza-harremanak sortzea eta erreferentzia bihurtzea, bizitzeko eta ikasteko laguntza, familia batek eskaintzen duena bezalakoak, eman ahal izateko. Premiazko harrera programetan denboraldi baterako bakarrik sartzen bada ere, egoitza-zentroen gehieneko edukiera ere mugatu da dekretuaren bidez (ikus gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautzen dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuaren 6. eta 44. artikulua).

Araudian jasotako parametroekin bat, Bideberria I premiazko harrera zentroan 12 pertsonarentzat dago lekua, eta 3 plaza gehiago, egoerak hala eskatzen duenean. Edukiera horren araberakoak dira hezitzaileen taldea eta zentroko baldintza materialak.

2. 2016ko azken hilabeteetan eta 2017an zehar, asko areagotu da Arabara eta premiazko harrera zentrorra heldu diren bakarrik dauden adingabe atzerritarren kopurua. Egoera horretan, adingabeen kopurua etengabe igotzen ari denean, foru administrazioak zailtasunak ditu arreta eskaintzeko; onartu beharra dago zaila dela, baliabide publikoen efizientziaren aldetik, zentroak irekita



mantentzea, noiz erabiliko zain; ondorioz, behin sortutako baliabide gehienak ez dira aldatzen (plaza libre batzuk dituzten arren). Heltzen diren pertsonen kopurua, hala ere, ezin da aurreikusi; baliteke aldizkakoa edo iragankorra izatea, hortaz, ulergarria da batzuetan, aldi laburretan, erabiltzaileen kopurua gehiegizkoa izatea.

Gaur egungoa, berriz, ezin da jo aldizkako igoeratzat edo egoera koiunturaltzat. Aipatu bezala, lehenengo harrera zentroetara heltzen diren adingabeen kopurua, jaitsi beharrean, igotzen zihuan 2017ko hilabeteak aurrera joan ahala. Ondorioz, Bideberria I zentroaren edukiera gainditu egin da (28 pertsona bizi dira 15 plazako etxean); gainera, ez dirudi erabiltzaileen kopurua epe laburrean gutxituko denik.

3. Gehiegizko okupazioa gorabehera, aurrekarietan esan bezala, adingabeei arreta emateko baldintzak ez dira txarrak. Ostatuari eta janariari dagokienez, administrazioa gai izan da oinarriko beharrak betetzen jarraitzeko, zentroan bizi ohi diren beste gazteen kasuan egiten duen bezala; langileen taldea handitu egin du eta gai da zentroaren eginkizuna betetzeko, hau da, orientabideak eta heziketa emateko. Dena den, galdetutako pertsona guztien iritziz, bistakoa da toki batean ia 30 nerabe elkarrekin egoteak eta sartuko direnen kopurua aurretik ikusi ezin izateak eragin txarra duela ematen zaien arretaren kalitatean.
4. Azken gogoetak migrazio prozesuekin du zerikusia, horien baitan gertatzen baita adingabe horiek toki batetik bestera joateko joera. Fenomeno hori tokiko maila baino askoz harago doa eta ikuspuntu zabalagoa eskatzen du; izan ere, mundu mailan gertatzen ari da, konplexua da eta eragile asko ditu. Mundu mailakoa izatea ezin da inola ere argudio gisa erabili gure lurraldera heltzen diren gazteei arreta emateko ardura alde batera uzteko; hala ere, hausnarketa zabalagoa oinarri hartuta jokatu behar da, eta horretan foru administrazioak parte har dezake.

Erakunde honen eskumenaren muga, Arartekoak ez ditu proposatuko autonomia-erkidegotik kanpo egin beharreko jarduketak (horiek ere egin behar direla jakinda ere). Hala ere, Arartekoaren iritziz, Euskadi, gizarte gisa, hemen aztertzen ari dena bezalako egoeretan ematen duen erantzunaren bitartez definitzen da. Jakina denez, euskal erakundeek elkartasunaren ikuspegitik bideratzen dute beren jarduna eta ahaleginak egiten dituzte etorkinen beharrei abegikortasunez erantzuteko. Hori azalduta, Arartekoak uste du Euskal Autonomia Erkidego osoaren mailan jardun behar dela familiarik gabe dauden adingabe atzeritarren beharrei erantzuteko, parte hartzen duten erakunde guztien arteko hausnarketa oinarri hartuta. Erakunde honen iritziz, lurralde guztiek era koordinatuan eta solidarioan erantzun behar dute, bestela ezinezkoa izango baita oraingo bezalako egoerari aurre egitea, "zentroek gainezka egiten dutenean". Testuinguru honetan, komenigarria izango litzateke jarduteko protokolo komuna ezartzea, 131/2008 Dekretuak eskatu duena





betez; horrela, aukera izango litzateke estatu mailako protokoloaren mugak gainditzeko eta Arartekoak bultzatzen duen hausnarketa partekatuaren ondorioz zalantzarik gabe sortuko diren beste kontu batzuk behar bezala lantzeko.

## GOMENDIOA

Hori dela eta, Arartekoak amaitutzat jotzen du bere esku-hartzea, Arabako Foru Aldundiari honako **gomendio hauek** emanez:

- Babesik gabe dauden adingabeei premiazko harrera emateko egoitzabaliabideak areagotu ditzan, dekretu arautzaileak xedatutako baldintzak betez.
- Premiazko harreraren programaren baitan lantzen ari den ikuspegi hezitzailea mantentzen dezan.
- Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek, familiarik gabeko adingabeen egoera aztertu eta horri elkarren artean aurre egiteko asmoz, antolatu ditzaketen ekimenetan parte hartzen dezan.

